



# EGAP

2018ko ekaina - 17. zenbakia



Goizuetako  
Idazkaria



# Mundu bat Goizuetan





# zenbaki honetan



# aurkibidea

- **3**..... Aurkezpena
- **4-6**..... Goizuetako ikasleak  
NIKARAGUA ezagutzuz
- **7**..... Katarrapikaka, Goizuetako  
lehiaketa mundiala
- **8-10**..... Azaro kulturala 2017
- **11-14**..... Goizueta iruditan
- **15**..... Euskaraldia, 11 egun  
euskaraz
- **16-19**..... Elkarrizketa Amaia Totori
- **20**..... Azera begira: Antton  
Berroetaren kronikak
- **21**..... Bertso txokoa
- **22**..... Ipuin erotikoa
- **23**..... Inkesta
- **24**..... Zure txanda

- **Argitaratzailea:**  
Goizuetako kultur taldea  
eta Goizuetako Udalaren  
Euskara Zerbitzua
- **Kolaborazioa:**  
Fernando Anbustegi
- **Diseinua:**  
Allende Arnaiz
- **Maketazioa:**  
astidiseinua.com

LG NA 742-2016





# Mundu bat Goizuetan

**H**emen da aurtengo aldizkaria, dagoeneko etxeetan jaso duzuen XAPO honek XVII. zenbakia du. Eta oraingoan ere herriko kontu eta argazki ugari ekarri ditu.

XAPO zabaltzen hasi orduko, eskolako ikasleek idatzitako erreportaje dotore bat topatuko duzue. Xalto eskolako 5. eta 6. mailako neska-mutikoek Nikaragua hobeki ezagutzeko lan bat egin dute, gelakide baten aitza-kian. Izan ere Uxue Aizkorbe goizuetarrak bere amaren herrialdera egin du bidaia familiarekin eta han bizitakoak kontatu dizkie bere lagunei. Uxueren esperientzia probestuz Nikaraguari buruzko artikulua prestatu dute, hango eta hemengo ezberdintasunak agerian utziz. Eskerrik asko Xalto eskolatik lan polit hau eskaini diguten ikasleei.

Herrian sortutako Katarrapikaka lehiaketa ere ezagutu genuen iazko azaroan, eta hura gogoratzeko artikulua bildu du XAPOk, egun hartako argazki batzuekin osatuta. Aurrez sekula egin gabeko emanaldia zenez jakinmina sortu zen herrian, eta horren seinale lehiaketak izan zuen harrerera bikaina. Katarrapikaka antolatzen duen taldeak aurreratu du, jada, aurtengoa ere izanen dela lehiaketa, beraz taldeak osatzen eta animatzen hasteko garai aproposa duzue herri-tarrek.

Beti bezala, ez dugu ahaztuko Goizuetako argazki sorta erakustea. Aurtengoa Zabalako Garazi Loiarrek eskaini ditu herriko irudi zoragarriak. Urtaro eberdinetan ateratako argazkiak, paraje eta irudi ederrak bildu ditu XAPOrako.

Bidaia atala osatzeko aurtengoa Amaiako elkarriketatu dugu. Ez bereziki bidai jakin bat egin duelako, ia bizitza erdia bidaiatzen daramalako baiziki. Bere lanbideगतिक hegazkinetik-hegazkinera eta herrialdetik-herrialdera pasatzen ditu orduak, eta urte luze hauetan ezagututako munduko tokiak erakutsiko dizkigu bere kontakizunetan.

Guzti hauez gain, izanen da bestelako konturik ale honetan ere: azkeneko azaro kulturalari buruzko bilduma egin dugu; bertso txokoa ere osatu dugu kalabaza batek sortutako gorabeheren inguruan; herritarrei galdera bota diegu zein festa edo ospakizun duten gustukuena jakiteko; eta bi futbolzaleren iritziak ere jaso ditugu.

Aurtengoa ere gustagarri izanen zaiuzuelakoan...





# Goizuetako ikasleak NIKARAGUA ezagutuz

Andres Narbarte "Xalto" ikastetxeko 5. eta 6. mailako ikasleek Nikaraguari buruzko informazioa bildu dugu hainbat iturrietatik.

Lantxo hau egiteko kuriositatea, gure ikaskidea den Uxue Aizkorbek piztu digu. Ikasturte honetan bi hilabetez lurralde horretan ibili da, horregatik, bertako berri jakiteko gogoak bultzatu gaitu hau dena gauzatzera.

Uxueren ama, Belkis, nikaraguarra da, beraz, aukera ezin hobea du gure lagun honek, hegazkinez bidaia egiteko, Atlantikoa zeharkatu eta Kariben lurreratzeko.

**N**ikaragua Amerika erdialdean dago, Karibe itsasoaren eta Ozeano Barearen artean. Iparraldean Hondurasekin du muga, eta hegoaldean, berriz, Costa Rikarekin.

Nikaraguak klima tropikalak du. Ekialdea, ordea, mendebaldea baino zertxobait epelagoa eta askoz hezeagoa da. Urteko batez besteko tenperatura 27°C ingurukoa da. Nikaraguako

lurraldearen erdia baino gehiago baso tropikalak hartzen du; oso trinkoa da toki batzuetan, eta zur bikaineko zuhaitzak ditu.


Nikaraguak 4 milioi biztanle ditu: gutxi gora behea %60a hiri inguruetan bizi da eta beste %40a landa-eremuan. Biztanleriaren erdia baino gehiago haurrak dira, bi milioi eta erdi inguru eta horietatik milioi bat eskolatu gabe

dago. Hau da, eskolara joateko adinaren dauden haurren erdia ez da eskolara joaten.

## Ume askok uzten dute eskola

Lehen mailako hezkuntza doan eta derrigorrezkoa da, baina azpiegitura oso txarra da (ikastetxeak eta irakasleak falta dira), eta haurren hiru laurdenek lehen mailako ikasketak egiten badi-tuzte ere, gutxi iristen dira bigarren mailakoak egitera.

Goi-mailako ikasketak egiteko zentro nagusiak, berriz, Erdialdeko Amerikako Unibertsitatea, Nikaraguako Unibertsitate Politeknikoa (biak Managuan) eta Nikaraguako Unibertsitate Autonomo Nazionala (Leon) dira.



Ikasturtea otsailean hasi eta abendu-  
duan bukatzen dute. Tartean Aste San-  
tuko oporrak izaten dituzte eta uztai-  
lean beste hamabost egun.

Oro har, hezkuntzan, okerrena zera  
da: Lehen Hezkuntzako haurren %45a  
ez dela Bigarren Hezkuntzara iristen.  
Horrez gain, urtero 130.000 haurrek  
baino gehiagok uzten diote eskolara  
joateari. Ikasketak hasten dituen  
%25a bakarrik iristen da 6. mailara.  
Eskola desertzioa izugarria da lanera  
joaten direlako, ekonomikoki familiari  
lagundu egin behar diotelako eta ira-  
kaskuntzaren doakotasuna ez delako  
hala praktikan. Ikastetxeetan norma-  
lean hiru txanda egoten dira, hots,  
haurrak goizez, arratsaldez edota  
gauetz joaten dira eskolara. Gelako ra-  
tioa 45 ikaslekoa da, baina sarritan 50  
edo 60 haur biltzen dira gela bakar  
batean.

Bestalde, haurrek uniformeak jantzi-  
ta joan behar dute eskolara: blusa edo  
alkandora txuria, gona edo galtza ur-  
din ilunak, galtzerdi txuriak eta zapa-  
ta beltzak. Horietako zerbait falta bal-  
din bazaie, eskolara joan gabe geldit-  
zen dira. Hemen zaila suertatzen zai-  
gu hori ulertzea, baina beraiek garran-  
tzi handia ematen diote uniformearekin  
joateari. Uniformea haurrengan aber-  
riko balioa sortzeko modu bat omen  
da, aberriarenganako maitasuna sor-  
tzeko modu bat.

## Kultura

Nikaraguako kulturak indigenen jato-  
rria du (batez ere Chorotega eta  
Nahual), Espainiak eta Afrikak (Kari-

be) sortutako kultur ondarearen  
nahasketa nagusiak islatzen ditu. Kul-  
tura anitza da.

Nikaraguan ospatutako inauteriak  
“Carnaval Alegría por La Vida” deitzen  
zaio. Otsailean ospatzen da Managua  
hiriburuan. Ospakizuna kolorea, mu-  
sika, nazioko dantza tipikoak, etab da.  
Inauteriak erregina hauteskundeak  
egiten ditu.

Nikaraguan musika herrikoia eta  
musika erritmikoak daude, hala nola:  
Son Nica, Marinba, Polka Nica, Ma-  
zurca, Jamaquello, Palo de Mayo, Ga-  
rifuna eta Kreolera, nortasun Nazio-  
nalaren hiru alderdi nagusien eragina  
erakusten dute.

Nekazaritza da herrialdeko jarduera  
nagusia, industria gehiena ere, neka-  
zaritza-produktuen elaborazioan oi-  
narritzen da.

Lantzen diren gaiei dagokienez, bi-  
zibidea ateratzekoak eta salmentara-  
koak bereizi behar dira: lehenbizikoan  
arteak artoa, arroza, basartoa eta baba-  
rrunak dira nagusi, eta bigarrenen ar-  
tean, berriz, kotoia, bananak, azukre-  
-kainabera, kakaoa, tapioka, ananak,  
kafea...

Nikaraguak baditu oso leku zoraga-  
rriak besteak beste; Granada, Omete-  
pe irla, León, San Juan del Sur, Grana-  
dako irlak, Mombacho sumendia,  
Apoyo lakua, Nikaraguako herri txu-  
riak, Masaya sumendia, Managua,  
Leongo hondartzak, Juan Venado irla,  
Leon zaharreko ruinak, muin beltza,  
Telica sumendia, Nikaraguako ipar-  
rraldeak, Nikaraguako karibea eta Corn  
Island dira Nikaraguako leku turisti-  
koak.



## UXUEK HANGO BIZIPENAK AZALDU DIZKIGU

Nikaraguak Euskal Herriarekin alde-  
ratuta baditu hainbat desberdinta-  
sun. Ni Nikaraguara lehenengo aldiz  
joan nintzenean dena arraro egin zi-  
tzaidan. Nire lehengusuak “chele” dei-  
tzen zidaten, ez nuen ulertzen. Nire  
aitari eta anaiari ere bai. Amak espli-  
katu zigun hitz horren esanahia. Zuria  
esan nahi du. Guri zuriak deitzen di-  
gute, berak oso beltzaranak direlako.

Nikaraguako ura ezin dugu edan,  
gure ura oso desberdina delako. Han-  
go jendeari ur horrek ez dio eragiten,  
baina guri bai, sabelako gaixotasuna  
jartzen du eta hiru egun gaizki igaro-  
tzen dira. Niri gertatu zitzaidan.

Egun batean dutzatzen hasi nin-  
tzen eta ura moztu zen. Ez nuen uler-  
tzen, uste nuen herriko ura bukatu  
zela. Baina ez zen horrela. Han,  
13:00etan ura moztzen zuten beste al-  
dean bizi direnek ura izan zezaten.  
16:00etan botatzen zuten berriz. Han,  
ura gutxi dago eta horregatik moztzen  
dute bi aldiz egunean. Herri askotan  
ez dago ur berorik.





## Belkis Herrerari elkarrizketa

**Zenbat denbora daramazu Goizuetan?**

Hamabi urte

**Eta Euskal Herrian?**

Hamabi, Goizuetara etorri nintzen handik.

**Nikaraguatik Goizuetara. Nola izan zen?**

Aldaketa itzela. Kultura, hizkuntza, klima, azpiegiturak,...dena oso ezberdina.

**Zer da inguru honetatik, gehien erakartzen zaituena?**

Eguraldi ona nola baloratzen duzuen, oporrak. Batez ere, egiten duzuen harrera, oso deigarria da.

**Euskara ikasteko saiakera egin duzu. Nola daramazu?**

Poliko-poliki noa. Alaba eta semearekin saiatzen naiz. Senarrak adarra jotzen dit. Inguruak ez di-

tudanekin, oraindik, blokeatzen naiz. Baina, pozik nago asko ulertzen dut. Hainbat bileretan haria jarraitzeko gai naiz, horrek animatzen nau. Bestela galdetu, arazorik gabe.

**Hizkuntza ulertzeak, errealitatea hobeki ulertzeko aukera eman al dizu?**

Hizkuntzak ate asko zabaldu dizkit. Kultura eta ohiturak ulertzeko aukera handia ematen du. Sema-alabak euskaraz ikasten dutenez, prestatua egon behar zara ulertzeko, laguntzeko. Beraz, mugitu behar zara.

**Nikaraguatik etorri, familia sortu. Nola aurkitzen zara une honetan?**

Lehenengo aldia gogorra izan zen, dena zure herrian utzi duzu. Senarra astean zehar ez dago etxean. Une batzuk zailak dira, baina egoera horretara ere ohitu egiten zara. Familiak eta lagunak aukera ematen didate

gustatzen zaizkidan ekintzak burutzeko. Bizitzako hainbat egoerek ere, bizitza beste era batetara ikusi eta ulertzen lagundu didate.

**Nikaragua Nikaraguita abestia, Takolo Prritx eta Porrotxen bertsoia entzuna duzu?**

Bai.

**Zer oroitzapen dakarkizu?**

Bihotza kikiltzen zait. Poza eta herrimina nahasten zaizkit. Edozein gauza entzuteak sentazio ona pizten dit nire barruan. Adibidez, iazko "Cervantes saria" Sergio Ramirezek irabazi zuela jakin nuenean, izugarri poztu nintzen.

**Nikaraguarra edo goizutarra?**

Ehuneko ehuna nikaraguarra. Ni hangoa naiz. Nire leinua da. Ez dut inoiz ukatuko. Kultura nire baitan egongo da. Hemen bizi naiz, bai, baina Nikaraguakoa naiz.

# Katarrapikaka, Goizuetako lehiaketa mundiala



Irabazleak Alaitz, Maialen eta Ane.

**A**rrakastatsua izan zen joan den azaroan KATARRAPIKAKA lehiaketa berria. Jakinmina sortu zen herrian lehiaketaren aurretik iragarritako hura zer izanen zen ezin asmatuz. Eta eguna iritsitakoan erantzun bikaina jaso zuen, bai ikusle aldetik baita parte-hartzaileen aldetik ere.

Baldintza ezberdinek eragin zuten arrakasta: izan daiteke formatu berri-tzailea zelako, edo emanaldi ezberdina zelako, baina seguru aski garrantzi handigoa izan zuen herriko lehiaketa bat izateak, herritarrek egina eta herriri buruzkoa izatea.

150 ikusle, 12 lehiakide, 2 aurkezle eta lantalde eder bat bildu ginen Udaletxeko ganbaran. Guztion artean osatutako ikuskizuna izan zen, denon parte-hartzeari eta laguntzari esker atera zen aurrera emanaldia.

Gogoratuko duzue, 12 lehiakide aritu ziren Goizuetari buruzko galderak erantzuten eta probak egiten, 4 koloretako taldetan banatuta.

Talde morea, Joxe Jabier Etxeberrria, Mila Zabala eta Maite Alsua osatu zuten. Talde urdina, Esteban Arozena, Fermin Narbarte eta Miren Terese Alduntzinek. Talde berdean Eva Elizegi, Bakartxo Huizi eta Alex Salaberria aritu ziren, eta azkenik, tal-

de arrosa Alaitz Eskudero, Ane Taberna eta Maialen Apezetxeak osatu zuten.

Talde berdea eta arrosa iritsi ziren finalera eta arrosak irabazi zuen Katarrapikakako lehenbiziko edizioa, hain zuzen ere lehiakide gazteenek osatutako hirukoteak. 300€ko txeketa eta herriko produktuen sorta bana eraman zituzten etxera. Gainerako lehiakideentzat ere izan zen saririk.

## Aurten bigarren edizioa

Iazkoaren erantzun ona ikusirik Katarrapikaka lehiaketa bigarren urtez prestatzea erabaki du lantaldeak. Ariketak pentsatzen hasiak dira, baina haiek alperrik arituko dira lehiakiderik gabe. Beraz XAPO aldizkaria baliatuz lantaldeak dei egiten dizue herritarrei bigarren ediziorako lehiakide gisara parte hartzeko. Aurten ere sari ederrak izanen dira parte hartzen dutenentzat.

## Taldekako lehiaketa

Hiruna pertsonako taldeak osatuko dira, eta 4 taldek parte hartuko dute. Guztira 12 lehiakide behar dira. Utzi lotsak eta apuruak eta animatu, bene-



tan esperientzia ederra izanen da-eta!

## Lehiaketa azaroan izanen da

Azaro Kulturalaren baitan antolatuko da lehiaketa, azaroaren 17an egingen da. Eguna iritsi aurretik osatu behar dira, ordea, taldeak. Beraz animatzen hasi eta pentsatu hirukoteak uda ondorenerako. Kartelak aterako dituzte izen-emateko datekin eta informazio osagarriarekin.

## Lehiaketaren sorrera

Jada lehiaketa ezagutzen duzue, jakinen duzue herriaren ezagutza zabaltzeko asmoz sortua dela emanaldi hau: Goizuetako historia, baserriak, auzoak, mendi eta errekek, tradizioa, ohiturak eta hizkuntza dira lehiaketaren oinarri; euskara jostaketarako baliatuz herriko ésaerak, esamoldeak eta garai bateko hitzak jasoko ditu, besteak beste. Herritik jasotakoa berriz ere herriri ematea da helburua, galdutakoa berreskuratuz, ezagutaraziz eta zabalduz. Herriaren, kulturaren eta euskararen inguruko ezagutza eta dibulgazio lan polit bat egin nahi da egitasmo honen bitartez.

# Azaro kulturala 2017

2017ko azaro kulturala era guztietako eta herritar guztientzako ekintzekin osatuta egon zen iazkoan ere. Urtetik urtera aberas- ten doazen ekimenek abenduan ere segida izan zuten. Hemen duzue errebaso ttiki bat:

## AZAROAK 3

### "Artikutzako tren" liburuaren aurkezpena

Antton Mendizabal eta Suberri Mateok Artikutzatik behera, Oiartzun zeharkatuz, Errenteriraino ailegatzen tren harrigarri bezain ezezaguna ikertzen jardun zuten eta bildutako informazioa liburu batean jaso ere. Ikusmen handia sortu zuen herritarren- gan XX.mende hasieran inguruko mendie- tan hainbat arrasto utzi zituen trenbideak.



## AZAROAK 4

### Artikutzako trenaren ibilbidea

Herriko 20 bat lagunek, Antton Men- dizabal eta Suberri Mateoren lagun- tzaz, Artikutzako trenak utzitako erres- toak ikusteko eta berriren bat topatze- ko aukera izan zuten.



## AZAROAK 11

### Patxuko Nice

Patxuko Nice taldeak bere azken dis- koa aurkeztu zuen Gaztetxean. Kantu berriez gain, Joxe Ripiau eta Esne Bel- tza taldeen kantuen bertsioak ere ez zi- ren falta izan.



## AZAROAK 4

### Umeentzako jolasak

Urteroko zita iza- ten dute herriko umeek azaro kul- turalekoa. Guraso elkartearen esku- tik, zirkuitu polit askoa egin zuten umeek, eta ondo- ren txokolatea hartuz berri- tu zituzten indarrak.







**AZAROAK 12**  
**ipuin kontalaria**

Pello Añorga ipuin kontalari oiartzuarrak aho zabalik utzi zituen herriko ume eta gurasoak bere ipuinekin.

**AZAROAK 18**  
**"Katarrapikaka, lehiaketa mundiala"**

Udaletxeko Ganbara leporaino bete zen Katarrapikaka lehiaketaren lehenbiziko edizioan. 3 laguneko 4 talde zein baino zein abilago ibili ziren herriko kontuen inguruko galdera eta probetan parte hartzen. Azkenean, talde gazteenak eraman zuten saria poltsikora.



**AZAROAK 24**  
**Artantxuriketan**

Artantxuko Maria Jesus Zugarramurdik bere hiru alabekin -Arantxa, Ainhoa eta Maider Ansak- euren amonari ikasitako abestiekin osatu zuten emanaldia artoa zuritzen zuten bitartean. Horretarako, baserri moduan girotu zuten eskolako jangela eta garai bateko jarduna burutu zuten bertan. Abesti motzez osatu zuten emanaldia: Haur kantak, bertso zaharrak, amodiozko kantak... hogeita hamar bat abesti guztira. Herritarrek, esker gisa, Xaltoren euskarari buruzko bertsoa kantatuz bukatu zen emanaldia.

**AZAROAK 25**  
**Azienda, artisau eta nekazal feria**

Hamalaugarren edizioa bete zuen iaz herriko hainbat elkarte, talde eta eragileren eskutik antolatzen den Goizuetako Feria egunak eta jendetza ibili zen azaroko azken larunbatean. Eguraldi euritsuaz babesteko eskolako frontoian jarri behar izan zituzten eskulangileen postuak.





**ABENDUAK 3**  
**Harria, maitasun istorioa**

Jende asko bildu zen Eskolako jangelan, Iñaki Perurenaren bakarrizketa saio polita entzuteko: *Harria, maitasun istorioa*. Harriarekin bizitako esperientziak kontatu zizkien leitzarrak, gogora ekarritik betidanik izan duela harremana harriarekin, eta beti mantendu nahi izan duela: trabak izan dituenean, modu batera edo bestera, beti saiatu da bere bizitza harriaren inguruan egiten.

**ABENDUAK 16**  
**Turroi eta mazapan ikastaroa**

Bederatzi pertsonak parte hartu zuten mazapanak eta turroiak egiten ikasteko ikastaroan eta oso gustora aritu ziren sukaldean saltsan, eguberrien atarian. Bidatz Barrenetxea Cebank sukaldaritza-ostalaritza eskolako irakasle hernaniarrarekin, mazapanak, turroi gogorra edo Alikanteko turroia, turroi biguna edo Jijonako turroia eta panllets-ak nola egiten diren ikasi zuten.



**URTARRILAK 12**  
**Errefuxiatuak eta emakume errefuxiatuen egoera Grezian**

Elurragatik atzeratuta, urtarrilean burutu behar izan zen azaro kulturalari amaiera eman zion azken ekimena. Bertan Luzia Etxeberría herritarrak eta Nafarroako Brigada taldeko beste kide batzuk Mediterraneo itsasoko irltako errefuxiatu kanpamenduetan izandako esperientziaren berri eman zuten. Gai interesgarria, dudarik gabe, eta Ganbarara hurbildu ziren hainbat herritarren ikusmina piztu zuena.





# Goizueta iruditan



**G**razi Loiarteren eskutik eginen dugu aurtengo paseoa Goizuetatik barrena. Herriko etxeak, paisajea, mendi inguruak eta herriko ospakizunak bildu ditu Zabaleko Garazik, argazki eder hauetan. XAPO XVII. Aldizkarirako eskatu eta pozik eskaini digun irudi sorta da, ea gustuko duzuen!







12


# iruditan













# EUSKARALDIA, 11 egun euskaraz

**B**atean eta bestean entzungo zenu-  
ten dagoeneko EUSKARALDIA  
badatorrela, ikusiko zenituzten  
euskaraldiaren logoa eta irudiak, ahobi-  
zi eta belarriprest figurak ere ezagutuko  
dituzue jada, .... zer da ba datorrena?

Euskal Herri osoan, 11 egunez eus-  
karaz aritzeko eta entzuteko ekimena  
da. 2018ko azaroaren 23tik abendu-  
aren 3ra bitartean landuko da propo-  
samen hori, euskaraz hitz egiten edo  
ulertzen dugun guztion artean euska-  
raz egin dezagun bultzatu nahi da.  
Euskal Herri osoan eta elkarrekin  
arrituta, gure egunerokoan eragin ge-  
nezake.

## Zer egin dezakegu euskal hiztunok euskara gehiago erabiltzeko?

Hizkuntza ohiturak aldatu eta ohiko  
harremanetan euskara gehiago era-  
biltzea lortu nahi da. Bakoitzak bere  
inguruan, bere harreman sarean  
euskaraz hitz egiten badu ohitura on  
horiek zabaltzen joanen dira, euska-  
ra erabiltzeko joera indartuz. Gertue-  
netik hastea proposatzen du Euskaral-  
diak: familian, lagunartean, lanean, es-  
kolan, dendetan...

Ohartuko gara Euskal Herrian eus-  
kara ulertzen duen jendea pentsatzen  
duguna baino gehiago dela eta euska-  
ra uste baino gehiagotan erabili deza-  
kegula. Guztion ahaleginari esker es-  
pazio berriak ere irabaziko ditu gure  
hizkuntzak.

Guzti honek aurrera egiteko he-  
rritarren parte hartzea beharrezkoa  
da, eta lehenengo urratsa, herri ba-  
koitzak izena ematea da. Goizuetak  
eman du dagoeneko, Euskaraldia  
landuko duela adierazi du, modu  
horretan. Goizuetaren antzera ehun-  
daka herrik erabaki dute ekimen ho-  
nekin bat egitea. Guzti horiek ikusgai  
daude Euskaraldiaren webgunean

zintzilikatu duten Euskal  
Herriko mapa koloretsuan.  
Puntu bakoitzak herri bat  
adierazi nahi du. Sartu ma-  
pan eta ea bilatzen duzuen  
zuen herria!!

Bada bigarren urrats bat,  
AHOBIZI edo BELARRIPREST  
izateko izena ematea:

- Ahobizi izateko, euskaraz  
hitz egiten jakin behar da.
- Belarriprest izateko euskara uler-  
tu behar da.



**EUSKARALDIA.**  
11 EGUN EUSKARAZ 2018ko azaroaren 23tik  
abenduaren 3ra

Izena ematen duten Ahobiziek eus-  
karaz hitz egiteko konpromezua har-  
tzen dute eta Belarriprestek euskaraz  
hitz egiteko gai ez diren arren ulertzen  
dutela adierazten dute. Batzuk eta  
besteak bereizteko txapa batzuk kale-  
ratuko dituzte antolatzaileak udaz-  
kenean: Ahoaren irudia duena  
Ahobiziek jarriko dute eta Belarri  
irudia duen txapa, euskara uler-  
tzen dutenek jantziko dute.

## Nork parte hartu dezake?

16 urtetik gorako herritarrek eman  
dezakete izena.

2018ko azaroaren 23tik abendu-  
aren 3ra, Ahobizi edo Belarriprest iku-  
rra soinean eramanez, eta hizkuntza ohi-  
turak aldatzeko ariketa egingen dugu!

## Eta bitartean, zer egin dezakegu?

Herriz herri antolatzen ari diren ba-  
tzordeetan parte har dezakezu. **Goizuetan ere sortu da batzordea, eta goizuetarrei batzordera hurbiltzeko dei egiten dizuegu, elkarrekin lan egin dezagun. Zuen ekarpena ere garrantzitsua da, inguruan Ahobizi eta Belarriprest berriak aktibatzen denok egin dezakegu gure ahalegina.**

Informazio gehiago nahi duenak  
honaako loturan sartu:

[www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)



Motorrean eserita, 2015-09-30.



Pragako erloju astronomikoa.

# ELKARRIZKETA

## Amaia Tatori

**A**maia Tato Zabaleta (1982) munduan barrena dabil hegazkinetik hegazkinera. Bidaia eta ordu asko egin ditu herrialde ezberdinetako zeruak zeharkatuz, munduko leku ospetsuenak, ederrenak eta lurralde arrotzenak ezagutu ditu, baina guztien gainetik Goizueta da Amaiaren paradisua.

**Hegazkineko laguntzailea zara (auxiliar de vuelo), zenbat urte daramazu lanbide honetan?**

2004ko irailan hasi nitzan. Beraz, 14 urte jada!

**Zenbat hegaldi egin ditzakezu egun bateko lanorduetan?**

Hegaldi 1 eta 4 bittarten egitera da normalana. Hegaldiak ibilbidearen arabera doaz. Luzea bada (ameriketarra) hegaldi bat egiten dugu, motxak bada (Bartzelona-Donostia) bi edo lau.

**Garbi dago asko bidaiatu duzula, toki ugari bisitatu, guztiak duela gutxi zenbatu omen dituzu, zenbat herrialdetan izan zara?**

Oker ez banago 56 kontatu nittun. Herrialde asko dia baina uste dut

%30a ikustera ez naizela iritsi. Badago zer ikusia oraindik!

**Zer bait kuriosoa gertatu izan al zaizu inoiz lanean ari zinela?**

Bai, bai, 14 urte ta gero esperientziak milaka, eta denetarik gertatu izan zaigu: bidaiari bat hil, atxiloketak, osasun larrialdiak, arazo teknikoak, turbulentzia larriak, ebakuazio bat ere izan dut hegazkina sutan hasi eta gero.... Eta guztien gainetik, pazientzia ta irrifarra. Hori ezin dia inoiz galdu publikoari begira lan egiten baduzu.







Brusela, 2014-07-23.

Brasil, 2011.



Senarrarekin.



Cancun, 2015-06-08.

**Bidaiari asko ezagutu izan duzu hainbeste joan-etorrietan**

Jende asko eraman izan dugu hegaldietan. Denak aipatzea ezinezkoa litzateke beraz hona hemen batzuk:

- Kirolariak: Jorge Lorenzo, Pedrosa, Gerard, Moya...
- Kazetariak: Jordi Evole, Luis del Olmo, Pepe Navarro, Jesus Calleja...
- Abeslariak: Bustamante, Bebe, Rosario Flores...
- Politikoaak: Pedro Sanchez, PP-ko kupula guzia, Pepe Mujica...







Perito Moreno  
glaziarra, Argentina.



Pepe Mujikarekin, 2015-06-02.



Hegazkineko kabinan, 2015-01-30.



Dogon, Afrika, 2010-03-22.

- Modeloak: Velencoso, Valeria Mazza...

Jende ospetsua: Paula Echevarria, *Telecinco*-ko ia gehienak, *Master Chef*-eko guztiak, *Operacion Triunfo*-koak, Gay de liebana, Carmen Martinez Bordiu eta familia guztia....

**Eta orokorrean, ze turista mota mugitzen da?**

Segun eta zein den helmuga...

Madriletik Bartzelonara, empresa gizonak; Kanarietara, familiak; Cancunera, ezkonberriak; Kubara, bakar-kako gizon helduak; Boliviara, bertako jendea hemen lanen ari dena familia bisitatzera; Ibizara, gazteak ... Hau dena orokorren hitz eginda, noski.

Arrazoi honengatik hegaldi batzuk besteak baino atseginago izaten ditugu.

**Zure eguneroko martxari begiratu, berriz ere, hegazkinetik irten gabe, hegaldi bat beste batekin lotzea tokatu al zaizu?**

Askotan! Azken batean, bulego batean lan egitera bezela da ordutegi aldetik. Gustora hartzen dia ere holako hegaldik ze itxera bueltatzen gara lotara normalen.

**Hala ere, noizbehinka izanen duzu tarte bat herrialdea bisitatzeko: hiri horretako toki tipikoetara joaten zara**

**ala gida turistikoetan erakusten ez dituzten lekuetara?**

Hasieran, leku "tipiko" edo "turistiko" guzik ezautzera jotzen gara. 20 aldiz joan zarenen bertara, bertako jenden bizimodua egiten saiatzen zara (zinera, pelukerira....). Beste batzutan etxean hartu ezin dugun deskantsua hartzeko aprobeztatzen dugu

**Ezagutu dituzun tokietatik zein aukeratu zenuke? gehien erakarri zaituena? Zergatik?**

Badaude herrialde batzuk paisaia aldetik edo kultura aldetik, beharbada, ez dianak hain erakargarrik biño oso arrax ta atsegin egitten da bidaiatzera,





Pragako Karlos zubia.



Itsukushima santutegia, Japonia, 2014-11-16.



Edurne Pasabanekin.



horietako batzuk dira: **Japonia, Txile, Txina, Malaysia, Singapur, New York...**

Beti bihotzen eramango duan herrialdea **Senegal** da, ordea. Normalen herrialde behartsuotara jotzen zarenen jenden interes ekonomikoa nabarmena izaten da, biño herrialde hontako jenden desinteresa, bihotz ona ta zorientasuna eztut iñon bizi. Iñoiz pertsona txuririk ikusi etzuten lekutan izan ginan, 10 pulgadako telebista bat 100 pertsonak ikusteko zuten lekutan eta harrigarria zen nola hain gauza gutxi izanta, zerbette oparitu nahi ziaten nik oroi-garri modun eramateko. **Malira** ere pasa ginan ta ia hilabetea ibili ginan, biño jendea haitz ezberdina da han.

Badia beste leku batzuk beran aurrangatik bueltatuko nitzakenak, **Bali** esaterako.

**Berriz errepikatuko ez zenukeen tokiren bat bada?**

Leku guzik ttuzte gauza onak eta txarrak. Hiri polittanak ere sartu ezin dian auzok ttuzte. Batzuk bestek biño gehio gustatuzkit biño nik bizitako esperientzia ta gero, oso zaila izango zit **Indiara** bueltatzea.

**Askotan eskatuko zizuten lagunek edo familiartekoez herrialderen bat gomendatzeko, ez da erraza izanen erantzutea.**

Ufff ... Ezin dut bat aukeratu ze leku bakoitzak do zer ikusi eta egina. Gainera segun eta ze planatan jon nahi den oporratara: urruti/gertu; familikin/bikotearekin/bakarrik; hondartza/mendia; ze aurrekontu, zenbat eun ... faktore asko daude bat gomendatzeko. Herrialde asko ta asko ttut atseginak.

**Lana kanpoan eta bizi Katalunian, faltan botatzen al duzu Goizueta?**

Galdera hau irakurtzen malkoa datorkit begira. Hainbat paradisu ikusi izan ttut miño nik uste bakoitzak berak itten dula leku bat paradisu izatea. Nerea, gure txokoa izango da beti.





# Antton Berroetaren

## kronikak



tsero su artifizialak erretzen ziren eta 15etik 17ra arratsaldero zezenen emaldia burutzen zen. Ia eguerdiro pilota partida bat jokatzeko zen, orduko pilotari afizionatu onenekin, jakina. Pilotari hauek osatzen zuten urte hartako zerrenda: Aguirre-Gorostiza, Espainiako Txapeldunak, Vergara II.a-Martinez de Irujo azpitzapeldunen kontra; Choperena I- Bengoechea II.a, Bengoechea III.aren- Elizalderen kontra; Arcelus-Bizcai, Ansola-Salbi-dearen kontra. Eta abuztuaren 18an, ordurako "tradizionala" zen Goizueta eta Aranoko pilotarien arteko lehia.

Eguneroko dantzaldiak, batzuetan eguerdian eta egunero ilunabar eta arratsean, Altsasuko *Los Diamantes* taldearen esku egoten ziren.

Egitarau ederra bai, baina abuztuaren 23ko kronikan Berroetak salatu zuenez, ez zen dena aurretik iragarri bezala bete. Esate baterako, Goizueta-Arano derbia ez zen jokatu eta igandeko pilota jaialdian, aurretik programatutako pilotari bakar bat ere ez zen agertu. Manolo Etxeberriak, Migel Etxegiak eta Salaberria anaiek osatutako laukoteak bete omen zuen, ederki aski gainera, hutsunea. Eguraldiak ere ez omen zuen lagundu, egunero xirimiria bota bait zuen kaleak eta plaza erabat lohituz. Hala ere, Donostia, Hernani, Errenteria, Oiartzun eta batetik ere Leitzako bisitari asko hartu zituen herriak festa egun haietan.

Bukatzeke, festei buruzko bitxikeria bat: Umore Ona Peñak zozketa antolatutako berak prestatutako ekitaldiak ordaintzen laguntzeko dirua biltzeko asmoz. Zer zozketatzen zen? Janariz eta edariz gainezka betetako hotzgailua. 11.000 pezetako balioa guztira. Ba, Erratetako Ferminari egokitu omen zitzaion sari eder hura.

Uhlen ere eman izan ditugu XAPOn Antton Berroetak (Lubinea, 1940) Diario de Navarran argitaratutako Goizuetako berriak. 1970etik 1975era bete zuen lan hori Lubinea etxeko semeak.

1972an esate baterako, Telleriko zelaia gipuzkoarren kanpaleku bihurtu zela zioen Anttonek, "ez da harritzekoa. Kontutan izan behar da Donostialdeko hondartzak jendez gainezka daudela, eta gainera, Goizuetako airea ez dela kutsatu orandik. Nola ba, ia-ia herriraino bazter guztiak pinudiz bete dira eta".

Abuztua izanik, urtero bezala Gamboa familia heltzear zen gure herrira.

Familia burua, Jose Miguel Gamboa, prokuradorea zen orduan Madrileko Gorteetan. Gizarte gaiekin jarraituz, Elkartasuna aretoan (zinean) haurren jaialdia ospatu zen, eta besteak beste, Ana Mari, Angel Mari eta Juan Ramon Apezetxea senideek arrakasta handiko musika emanaldia eskaini zuten.

Hurrengo kronika, abuztuaren 11koa, festa programari eskaini zion Diario de Navarrak. Ekitaldiz ederki honitutako 7 egunek osatzen zuten 1972ko Amabirjinetako egitaraua, abuztuaren 14tik, astelehena, 20ra, igandea. Azkeneko bi egunak Umore Ona Peñak antolatzen zituen. Gainbegirada bat emanez, 15etik 18ra arra-



# Kalabazak eragindako haserrea

Lehen ere Manolo Arozenaren (Sarran, 1949) bertsoak argitara eman izan ditugu *Xapon*. Gaurko hauek Manolo plazetan hasi baino urte batzuk lehenago idatzitakoak dira, 1982an hain zuzen.

Espainiako Estatuak 1998an itxi zuten *EGIN* egunkariak irakurleek bi-

dalitako bertsoak argitaratzen zituen, *Egunon* gehigarrian. Horixe aprobetxatu zuen Arozenak Goizuetan gertatutako bitxikeria bati buruzko zortzi bertso hauek argitaratzeko.

*Goizuetan haserrea* izenburupean idatzitako bertsoek herriko bi agu-


reei Beheko Landan gertatutakoa kontatzen dute. Batek kalabaza landarea landatu zuen bere baratzean baina honek burua ondokoan bota zuen. Hango jabeak kalabaza hura etxera eraman zuenean sortu zen haserreaz idatzi zuen honako bertsoaldia Manolo Arozenak.

## Goizuetan haserrea

Doinua: markesaren alaba

- |  |  |
|--|--|
| <p><b>(1)</b> Bertso berri batzuak nahi nituzke jarri adierazi nahian Goizutako berri, bi gizon hor haserre dabilzkigu larri zergatikan pasa dan ezetz zuk igarri.</p> | <p><b>(5)</b> Alde batean zainak hori da egia, burua besten dago, harke arrazoia, haserrea sortu dun kalabaz hazia hobe genduan sortu aurretik kentzia.</p>          |
| <p><b>(2)</b> Biek baratza zuten elkarren onduan eta moldatzen ziran lagunen moduan, baina gauza xeblek gertatzen munduan, batek lana eginda beste aldera juan.</p>    | <p><b>(6)</b> Jaungoikoan esana bihotzan gordeta, bakea ein zazue askoz hobe da ta; elkar hartutzeko re oraintxe da beta, hurrengo urterako eginaz pareta.</p>       |
| <p><b>(3)</b> Ez pentsa danik broma hau da seriua, alperrikan garrasi ez egin oihua batzutan gure lurrak dun poderiua, alde baten sortu ta besten ein burua.</p>       | <p><b>(7)</b> Gauza hau gertatu da Goizuta aldian, jende euskaldun jatorra dagan tokian, truken joka zazue taberna batian, edo bestela saldu azaron ferian.</p>      |
| <p><b>(4)</b> Erabakitzea orain ez dago erreza, laguntza behar dute inork albaleza, baina arrazoi dunak irabazi beza, Hernanitik ekarri beharko da jueza.</p>          | <p><b>(8)</b> Holako gauzak sarri eman lezake min, baina, ez dadin gerta in behar alegin, danak izan dezagun poza ta atsegin kalabazaren orde z babarruna erein.</p> |





# IRAILAK 12

**H**arrigarria. Bitxia behintzat. Hain hurbil eduki, hainbeste gauza elkarrekin egin eta hain urrun sentitzea ere.

Lantoki berean ikusten dugu elkar, egunero, momenturo. Hala ere, ez naiz inoiz ausartu berari ezer esaten. Gure harremana, beraz, begirada (batzuetan lizun) eta irribarre batzuetara mugatzen da. Lana eta plazerra ez omen dira nahastu behar. Bost axola niri.

Ziur nago bion artean laguntasun on bat baino zerbait gehiago dagoela, kimika beharbada. Bai, hori da. Egunero, gure begiek topo egiten dutenean, halako zirrara bat sentitzen dut behetik goraino eta goitik beheraino. Nire osotasuna betetzen duen bero ikaragarri bezain atsegin bat, suak nere barruko likido guztia irakiten jarriko balit bezala. Begirada soil bat.

Egia esan, ez dugu lan handirik egiten, atseden ugari eta luzeak izaten ditugu lan batetik bestera, ezin hobeak elkar hobeto ezagutzeko. Ez naiz berari proposiorik egiteko gai sentitzen, ordea, daukagun apur hori zapuzteko beldurrez.

Bere janzkera ere probokatzaila da, guztiz. Gorri erakargarri kolorekoa, p-tik a-rako pasioa irudikatuz. Apustu egingo nuke, gainera, gero eta motzagoa dela daraman soinekoa. Bihurri halakoa! Nire janzkera ere ez da nolana hiko, ze arraiio! Esanguratsua denik ezin ukatu. Itxaropenaren kolorekoa, berdea. Noizbait gure arimak elkartu eta pentsaezina, irudika ezina eta kontaezina den gauza oro eginez inoiz bananduko ez diren itxaropenaren kolorekoa.

Eskote zabal horrek agerian uzten ditu bere *intentzioak*, inoiz lepokorik ezagutu ez duen paparra. Ai ene! Arrazionaltasunaren mugak behin eta berriro haustera behartzen nau. Nire asmoen berri izango balu...auskalo bere soinekoak non bukatuko lukeen.

Aspaldi ezagutzen dugu elkar, eta hori oztopo gisa ikusten dut maiz, izan ere, lagunak baino zerbait gehiago izatea aunitz zailtzen du horrek. Elkarrenganako konfiantza haundia dugu, elkarri sekretuak kontatzen dizkiogu, eta noski, bion arteko harremanean

sakontzea zailago suertatzen da. Gainera, bulegoan, bertze lankideen artean, ezinezkoa suertatzen da intimitate pixkat izatea. Intimitate pixka bat bagenu...aspaldi dut gustoko, baina azkenaldi honetan areagotu egin da nigan, bereganako grina. Odola irakiten, borborka jartzen zait ondoan daukadanean. Nere aldamenen daukadanean zirrara berezia nabaritzen dut, ezin dut lorik hartu, amets lizun eta hezeak behin eta berriz errepikatzen dira ene gogoan. Ametsetan, eskutik hartu eta zuzen, zeharka, borobilean elkarrekin dantzan aritzen gara, pixkanaka-pixkanaka gure jantziak tikitzen doaz ikusezin bilakatu arte, gure listuak nahasten dira, ferekak, lazta-nak etengabeak dira, suabe-suabe, goxo-goxo hasieran, sutsuagoak gero, nahasmena, zirriborro etengabe eta amaiezina. Ai! Nola nagoen, eta orduan iratzartzen naiz berriz. Eta hortxe dago, beti bezala nere ondoan, beti bezala hain urrun.

Jo, boligrafo parez ez bagina...

JOTA KE TINTA ISURIARTE!



# Zein da Goizuetan antolatzen den jai edo fiesta eunatatik gehina gustatzen zizuna?



**Eli Salaberria**

Herriko fiestak.



**Maite Arratibel**

Fiestak, bino gehina Txaranga ta plazako musika.



**Mari Jose Albistur**

Fiestak.



**Mari Jose Mitxelena**

Karnabalak. Mozorrok.



**Mari Angeles San Miguel**

Feri euna.



**Aitor Lujanbio**

Karnabalak.



**Eustakio Zubieta**

Txinoko fiestak.



**Ander Mitxelena**

Karnabalak.





# ZURE TXANDA



**AITOR  
AIZKORBE**  
Athleticzalea

**Esaten da futbola dela kirol izarra, horrela ote?**

Eia esan garbi do mundu mailan gehina seitzen den kirola dela, hori ikusita, kirol izarra dela esatera atrebittuko nitzake.

**Zer du Athleticcek beste taldeek ez dutena?**

Ez nuke jakingo saten ze difentzi dun. Ekipo bakoitza beste guzín artean diferentea dela pentsatzen dut, bakoitzak futbola bizitzeko filosofia ta modu ezberdinak eukiko ttulako.

**Goizuetan, futbol zaletasunik bai al da?**

Goizuetan eia esan garbi do bertako kirol guzik seitzen diala! Ta pilotakin batera futbola dela gehina seitzen denatako bat.

**Taldea gaizki xamar baldin badao, entrenatzailea errudun?**

Nahiz ta errexana entrenadoreri kulpa botzea den... ez dut uste hala denikan, hori bai, tenporada oso txarra itten ai bada ekipoa, entrenadore aldaketa batek futbolariak motibatzen ttula iduitzen zit. Alde hortatikan, entrenadoren aldaketan alde no!

**Ze jokalarí duzu gustukoen? Zergatik?**

Eia esan bat aukeratzea zaia itten zit biño bat esatekotan Raul Garcia esango nuke, jokatzeko era ta patzen dun intentzion-gatikan gehien bat. Kepa, Aduriz ta beste hainbeste, asko gusatzen zizkian jokalaríak dia.

**Atzerritarrak beharrezkoak al dira, talde ona sortzeko? Kanteratik ezin al da tira?**

Nik uste Athleticcek dun filosofiakin ekipoa motz gelditzen dela. Kantera eta Euskal jokalarik fitxatzekin ez zit nahikoa iduitzen.

**Ze jokalarirekin osatuko litzateke talde ona, zure ustez?**

Portero: Oblak. Defentsak: Marcelo, Pique, Ramos ta Dani Alves. Erdilarik: Pogba, Modric ta Iniesta. Aurrelarik: Messi, Lewandowski ta Salah.

**Zer egin du gaizki (egin badu behintzat) Iñigo Martinezek?**

Ni Athleticckoa izanta, ez zit iduitzen deuse gaizki in dunikan, nere ustez, guretzako fitxaje on bat baita! Beste alde batetik eia da, nolabette, Reala "traizionatu" in dula, jendek esaten dun bezela. Nahiz ta hori hola izan batzuntzat!, edozineri (Athleticcek Iñigori bezela) dirua begi aurren patuko balikete inork ez lukeela zalantzaik inen, iduitzen zit!

**Zergatik hainbesteko "píkea" Realeko eta Athleticcko zaleen artean?**

Horrela pentsatzen jarrita, ttikitatikan hor don gauza bat da. Nik uste "píkea" hau ez dela gure arteen sortzen den gauza bat, ttikitatik erakusten diutena baizik. Hala ere beharrezkoa dela iduitzen zit, bestela ez luke horrenbesteko grazik eukiko futbolak.

**Futbolak zergatik sortzen du hainbesteko haserrea?**

Bakoitzan gustok txokatzen duten kirol bat delako ta denak hau bizitzeko modu diferente bat dulako, nik uste!

**Etxean partidua ikusi edo oxeguardan, bai al dago alde?**

Dudik gabe alde dola! Ez da berdina bakarrik do launakin partidua ikustea. Nahiz ta batzutan bakarrik ikustera ere gusatzen zian. Halare, bitik baten, oxeguardan partidua ikustera beste xarma bat dula iduitzen zit ta batez ere derbia de-nean!



**IKER  
MIRANDA**  
Realzalea

**Esaten da futbola dela kirol izarra, horrela ote?**

Izarra ez dakit, biño jende gehina muitzen du-na bai, itxuraz!

**Zer du Realak beste taldeek ez dutena?**

Ez dakit biño, ttikitatik Realakoa naiz, atta ere hala delako eta gustora no.

**Goizuetan, futbol zaletasunik bai al da?**

Bai, eta euskal taldeez gain beste ekipotako za-leak ere badia.

**Taldea gaizki xamar baldin badao, entrenatzailea errudun?**

Errudun denak biño irtenbide errazena, entrenatzailea aldatzera.

**Ze jokalarí duzu gustukoen? Zergatik?**

Xabi PRIETO. Betitik Realan egondu delako, kapitaina delako eta jokalarí ona delako eta pertsona bezela iduitzen zit Realan balorek on-gi transmititzen ditulako.

**Atzerritarrak beharrezkoak al dira, talde ona sortzeko? Kanteratik ezin al da tira?**

Gustatuko litzaidake kanterako jokalariekin bakarrik jokatzera biño goi mailan egoteko beharrezkoak dira kanteratik kanpoko jokalarik, Gaur egun ez dago kanteratik bakarrik jokatzen duen talderik.

**Ze jokalarirekin osatuko litzateke talde ona, zure ustez?**

Portero: TER Stegen. Defentsa: Odrionzola, Pique, Ramos ta Marcelo. Erdilarik: Illarramendi, Kroos ta Xabi Prieto. Aurrelarik: Messi, Griezmann ta Oyarzabal.

**Zer egin du gaizki (egin badu behintzat) Iñigo Martinezek?**

Jon den momentun jotea, esan dituenak esatea eta batez ere Athleticera joatera.

**Zergatik hainbesteko "píkea" Real eta Athleticcko zaleen artean?**

Iñigo Matinezen bezelako kasuengatik.

**Futbolak zergatik sortzen du hainbesteko haserrea?**

Ni ez naiz gehiegi haserretzen, biño asteen zehar zerbettetaz hitzein behar da!

**Etxean partidua ikusi edo oxeguardan, bai al dago alde?**

Ahal duanean Anoetan, eta bestela etxean gehienetan. Oxeguardan giro hobea egoten da biño etxean nahi dituzunak esan littezke inor molestatu gabe.